



7. AKTA

OHIKO UDALBATZA, 2005eko maiatzaren 31n izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta Trintxerpeko Alkateordetzan.

NOIZ: Bi mila eta bosteko maiatzaren hogeita hamaiketan.

Bilkura buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, ondorengo zinegotziak etorri dira:

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.
Rafaela Romero Pozo a.
Lucía Querido Noceti a.
Juan Manuel Domínguez López j.

EAJ-tik

Jose Luis Goikoetxea Garmendia j.
Jose Manuel Anso Martínez j.
Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j.
Joaquín Martínez Vidal j.

EA-tik

Miriam Cano Puy a.
Mariví Roteta Mujika a.
Aitor Larrañaga Burguera j.

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j.
José Luis Mtez. de Espronceda Luiña j.

EB-IU-tik

Jesús M^a García Garde j.
Fco. Javier Pombo González j.

Ohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Ez du ezin etorria justifikatu Juan Ramon Gonzalez Medrano atxiki gabeko zinegotziak. Halaber, bilkura honetan izan da Karmele Lizaso Ubera andrea, behin-behineko kontu-hartzailea.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

1.- Aurreko batzarraldiko 3. akta irakurri eta onartzea, 05-2-22 datakoa.

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen den akta aztertu ondoren, aho batez erabaki dute onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea, ondoko zuzenketak egin ondoren:

- Aktan jasotzeko, PPko zinegotzi-taldeko eledun Guillermo Sánchez Berra jn.a kexu da aktetan EB taldekoen presentzia eta botoak euren taldearen aurretik jasotzen direlako, alderantziz izan beharko lukeen arren.
- Udal idazkariak zinegotziari erantzun dio eskaera hori kontuan hartuko duela.

2.- Alkatetza eta Zinegotzi Delegatuen Xedapen Ofizial eta ebazpenen berri ematea.

Bertaratutakoen esku jarri da alkate eta zinegotzi-ordezkarien Ebazpen-liburua, horren berri izan dezaten.

- Halaber, idazkariak ondoko epaiaren berri eman du: Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko auzietako Salaren hirugarren sekzioak emandako epaia, 356/05 zenbakia duen ohiko errekursoari buruz: Antonia Alvarez García and.ak ondare-erantzukizuneko erreklamazioa aurkeztu zuen, 1998ko ekainaren 21ean Rikardo Arrillaga kalean erori eta izandako kalteengatik. Epaiak erreklamaziogileari aitortu egiten dio Pasaiako Udalarengandik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea, hain zuzen ere 10.021,00 euro eta legezko interesak. Sortutako kostuak ez dira esanbidez ezartzen.

3.- Alkatetzaren eta Gobernuko Organoen Kontrolaren Jestioak (L.B.R.L.-ko 462,e) artikulua).

Alkate andreak azkeneko bilkuratik hona egindako gestioen berri eman du.

- Nabalaldea, 05/5/3an eta 05/5-24an izandako bilerak. Desjabetzeari dagozkion gestioen berri eman du eta akordioak nola dauden adierazi du.

- Eusko Jaurlaritzako Industria Sailean bilera, Nabalaldeko pabiloien emakida-prezioa berriz azter dadila eskatzeko.
- Bilera: Jan de Cock proiektua.
- Erakunde Arteko Batzordearen bilera.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bilera –Gizarte Politika– babespeko etxebizitzetzi buruzko Dekretuaz hitz egiteko.
- Gipuzkoan URBAN planaren jarraipen-batzordea. Eledunen Batzarrerako deialdia egingo da.
- Daniel de Castelaori eskaintza.
- San Pedroko Quorumarekin bilera. Gaia: Ondartxo.
- Itsasontzia uretaratzea 05-5-25ean.
- Loriartzuni buruzko prentsaurrekoa. Aurkezpena. Promozio turistikoa.
- EAko zinegotzi-taldeko eledun Miriam Cano and.ak ondoko zurrumurruari buruzko galdera egin du: jubilatuen Donibanetik kiroldegira igotzen dituen autobusaren finantziakioa kenduko ote den.
- Gizarte-ekintzako zinegotzi ordezkari Xabier Pombo jn.ak adierazi du atzo bildu zela Jubilatuen Elkarteko buruarekin eta ondokoa adostu zutela: Gizarte-ekintzako aurrekontuan dirurik aurreikusituz ez denez, uda amaiera arte ordainduko da eta ordutik aurrera elkarteak hartuko du bere gain gastu hori, urtean zehar egiten diren jardueren barruan sartuz. Amaitzeko esan du balorazio orokor horretatik kanpoko edozein diru-laguntza diskriminatzailea izango litzatekeela gainerako elkarteentzat.
- Miriam Cano and.ak ondo deritza homogeneizatzeari baina gero diskriminazio positiboak egin beharko liratekeela dio.
- Xabier Pombo jn.ak jakinarazi du elkarteekin bi hilean behin elkartzen dela eta jubilatuen elkartearen arteko ezberdintasunak kentzen saiatu direla.

OGASUNA

4.- Albaola Elkartearen udal-ereseko elkargoaren izendatzea.

Udalbatzak bertako zinegotzien aho batez Kultura eta Hezkuntzako Udalen Batzorde Informatiboak eta Ogasun Batzorde Informatiboak hurrenez hurren 2005eko urtarrilaren 13an eta 2005eko maiatzaren 17an egindako proposamenez

ERABAKI DU

LEHENA.- ALBAOLA ELKARTEA udal-ereseko elkargoaren izendatzea.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

5.- Tasen onarpena: Helduentzako ikastaroak, 2005/2006 ikasturtea.

Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoaz Kultura eta Hezkuntzako Batzorde Informatiboak eta Ogasun Batzorde Informatiboak hurrenez hurren 2005eko apirilaren 14an eta 2005eko maiatzaren 17an egindako proposamenez

E R A B A K I D U

Jarraian agertzen diren 2005/2006 ikasturteko helduentzako ikastaroen tasan onartzea:

**6. KULTURA ETA HEZKUNTZA ARLOKO PROGR-
MAK**

6. PROGRAMAS AREA CULTURA Y EDUCACIÓN

	2005 / 2006	
	Pasaian erroldatuak Empadronados en Pasaia	Pasaian ez erroldatuak No empadronad. en Pasaia
	€	€
Helduentzako tailerrak Talleres para adultos	46,50	70,00

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI aldeko boto, PSE-EE (5) PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotziena; eta SEI aurkako boto, EAJ (3) eta EA (3) taldeetako zinegotziena.
- Parte-hartzeen atalean ondokoak esan dituzte:
 - EAJko zinegotzi-taldeko eledun José Luis Goikoetxea jn.ak aurreratu du bere parte-hartzea bakarra eta orokorra izango dela tasei buruzko akordio guztietarako.

Batzordean haren taldea abstenitu egin zen tasak funtsatzeko azterketa ekonomikorik ez zegoelako eta horien bilakaerari buruzko azterketa historikorik ez zegoelako. Dokumentazio hori ez da orain arte banatu eta horretatik aurkako botoa emango dute.

Tasa batzuen sakonduz gero, zalantza du ikasturteko ikastaroak ote diren esaterako udan egiten diren gazteria eta kiroleko jarduerak, eta ez ote diren 2005eko ordenantzen aurkakoak. Haren iritziz 2005/2006 aldiari dagozkiola azaldu beharko litzateke.

- Alkateak erantzun dio ez ziola ulertu dokumentazioa udalbatzarrerako nahi zuenik eta adierazi dio saileko buru guztiei zirkular bat bidali zaiela informazio hori ekainaren 6a baino lehen aurkezteko.
- EAko zinegotzi-taldeko zinegotziak iragarri du bere taldeak aurkako botoa emango duela, eledun jeltzaleak emandako arrazoiengatik.

6.- Taseen onarpena: Haur eskola, 2005/2006 ikasturtea.

Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoaz Kultura eta Hezkuntzako Batzorde Informatiboak eta Ogasun Batzordeak hurrenez hurren 2005eko apirilaren 14an eta 2005eko maiatzaren 17an egindako proposamenez

E R A B A K I D U

Jarraian agertzen diren 2005/2006 ikasturteko haur eskolaren tasak onartzea:

5. HAUR ESKOLA	5. ESCUELA INFANTIL
-----------------------	----------------------------

A) KUOTAK	A) CUOTAS
11 Hilabetez kobratuko dira	Se cobrará 11 meses

Kuotak:

		Pasaian erroldatuak	Pasaian ez erroldatuak	
		Empadronados en Pasaia	No empadronados en Pasaia	
Tartea	Ordutegia	€	€	Horario
0-2	12:00ak arte bazkaririk gabe	53,50	80,50	Hasta las 12:00 sin comida
	Jarraiko ordutegia bazkaria barne	160,00	240,00	Horario continuo con comida
2-3	12:00ak arte bazkaririk gabe	37,00	56,00	Hasta las 12:00 sin comida

Jarraiko ordutegia bazkaria barne	122,00	183,00	Horario continuo con comida
-----------------------------------	--------	--------	-----------------------------

	€	
Matrikula-tasa	21,50	Tasa por matriculación

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI aldeko boto, PSE-EE (5) PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotziena; eta SEI aurkako boto, EAJ (3) eta EA (3) taldeetako zinegotziena.

7.- Tasen onarpena: Musika eskola, 2005/2006 ikasturtea.

Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoaz Kultura eta Hezkuntzako Batzorde Informatiboak eta Ogasun Batzordeak hurrenez hurren 2005eko apirilaren 14an eta 2005eko maiatzaren 17an egindako proposamenez

E R A B A K I D U

Jarraian agertzen diren Musika Eskolako 2005/2006 ikasturterako tasak onartzea:

8. PASAIA MUSIKAL	8. PASAIA MUSICAL
--------------------------	--------------------------

	PASAIA ERROLDATUAK	PASAIA EZ ERROLDATUAK	
	<i>EMPADRONADOS EN PASAIA</i>	<i>NO EMPADRONADOS EN PASAIA</i>	
1.- Tarifa orokorra	€	€	1.- Tarifa general
1. Ikasgaia: urtean	165	248	1ª asignatura: año
Hurrengo ikasgai bakoitzeko	120	180	Cada una de las siguientes asignaturas
2.- Espezifikoak	€	€	2.- Específicos
2.1. 5 eta 6 urteko ikasleen musika-tresna	88	132	2.1. Instrumento alumnos 5 y 6 años
2.2. Musika eta mugimendua (4 eta 5 urteko ikasleak)	88	132	2.2. Música y movimiento (4 y 5 años)
2.3. Pianoa	165	248	2.3. Piano
2.4. Bertako dantzak	120	180	2.4. Bailes Vascos

2.5. Taldeko klaseak	43	43	2.5. Clases grupales
2.6. Teklatu orkestra	87	87	2.6. Orquesta de teclado
2.7 Pasaiakoak ez diren ikaste-txeetako ikastaroak: ikastaroaren benetako kostuaren arabera			2.7 Cursos en centros escolares no pasaitarras: se liquidarán las tasas en función del coste real del curso.

ORDAINTZEKO MODUA

1.- Erregimen orokorra :

Irailean %50

%50 abenduaren 20an bere kargura eginiko ordainagiria.

2.- Ikastetxeak eta taldeko ikastaroak : hilerok.

FORMA DE PAGO

1.- Régimen General :

50% en el mes de septiembre

50% recibo a su cargo girado con fecha 20 de diciembre.

2.- Centros escolares y clases grupales : mensualmente.

KUOTAK

Ikastaro osoa

Ikastaro hau jada hasia denean bilduz gero, kuotak proportzionalki kalkulatu dira, ikaslea hasten den hiletik ikastaroa (ekainean) amaitzen den arte dauden hilabeteak kontuan hartuz.

CUOTAS

Por curso completo

Cuando el alta se dé una vez iniciado el curso, las cuotas se calcularán proporcionalmente al número de meses existentes entre la fecha de comienzo y el final del curso (junio).

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI aldeko boto, PSE-EE (5) PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotziena; eta SEI aurkako boto, EAJ (3) eta EA (3) taldeetako zinegotziena.

8.- Tasen onarpena: Euskara jarduerak, 2005/2006 ikasturtea.

Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoaz Euskara Batzorde Informatiboak eta Ogasun Batzordeak hurrenez hurren 2005eko apirilaren 15ean eta 2005eko maiatzaren 17an egindako proposamenez

E R A B A K I D U

2005/2006 ikasturterako euskara jardueretarako KPIren igoera aplikatua (%3) ateratzen diren ondorengo tasak onartzea:

12. EUSKARA ARLOKO PROGRAMAK	€	12. PROGRAMAS AREA EUSKARA
FAMILI EGITASMOA		PROGRAMA FAMILIAR
<ul style="list-style-type: none"> • Matrikula: 0-12 urte bitarteko haurrak dituzten guraso erdaldunentzako euskara ikastaroak. 	124,00	<ul style="list-style-type: none"> • Matrícula: cursos de euskara para padres castellanoparlantes con hijos de entre 0 y 12

<p>BEKA SISTEMA: Ikastaroa bukatu ondoren matrikula-kostuaren %50 itzuliko zaie ondoko baldintzak betetzen dituztenei:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikastaroa amaitu. - Ikastaro-orduen %85 bete. - Irakasleak aldeko txostena egin - Ikastaroaren kostu osoa ordaindua eduki. 				<p>años.</p> <p>SISTEMA DE BECAS: Al acabar el curso se devolverá el 50 % de la matrícula a aquellos que cumplan los siguientes requisitos:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Acabar el curso. - Cumplir el 85 % de las horas establecidas para el curso. - Presentar informe favorable del/a profesor/a. - Abonar el costo total del curso.
<p>• Gurasoen tailer kolektiboak</p> <p>0-6 urte bitarteko haurrak dituzten bikote euskaldunentzako</p>		€		<p>• Taller colectivo para padres</p> <p>Dirigido a parejas euskaldunes que tienen hijos de 0-6 años.</p>
<p>Bikoteentzako tailer kolektiboak</p>	<p>Bikoteko</p>	<p>3,2 orduko</p>	<p>Por pareja</p>	<p>Taller colectivo para parejas</p>
<p>Ipuin, kantu eta jolasen tailerra</p>	<p>Kideko</p>	<p>2,9 orduko</p>	<p>Por persona</p>	<p>Curso de cuentos, canciones y juegos:</p>
<p>Igandetako irteerak: 3 igande (hiru hilabetetan)</p>	<p>Familiko</p>	<p>26,00</p>	<p>Por familia</p>	<p>Salidas domingueras: 3 domingos (una al mes)</p>

Merkataritza Egitasmoa		Plan para el Comercio
<p>Matrikulak: Pasaian establezimendua duten merkatariei eskainitako euskara ikastaroak.</p>	€	<p>Matriculas: cursos de euskara para aquellas personas que tengan un establecimiento en Pasaia.</p>
<p>- 40 orduko ikastaroa (astean behin ordu eta erdi)</p>	44,00	<p>Curso de 40 horas (hora y media semanal)</p>
<p>- 130 orduko ikastaroa</p>	124,00	<p>Cursos de 130 horas</p>
<p>- Ohiko ikastaroak: Euskaltegiko matrikula</p>		<p>- Cursos ordinarios: Matrícula del euskaltegi</p>

BEKA SISTEMA: Azken ikastaro hauetan parte hartzen dutenei Pasaian errolatutako guztiei eskaintzen zaien beka sistema bera eskaintzen zaie, alegia %85eko asistentzia eta aprobetxamendua egiaztatuz gero, matrikula-kostuaren %25 itzuliko zaie ikastaro amaieran.

SISTEMA DE BECAS: A las personas que participen en éstos últimos cursos se les ofrecerá el mismo sistema de becas que a todos los empadronados en Pasaia, es decir, al finalizar el curso se les devolverá el 25% de la matrícula, siempre y cuando certifiquen el 85 % de asistencia y aprovechamiento del curso.

Natur eskoletako egonaldiak egitasmoa		Plan para estancias en escuelas de naturaleza
3.,4.,5. eta 6. mailako eskola-umeentzako egonaldiak. Haur bakoitzak ordaindu beharreko kuota:	€	Estancias destinadas a niños/as de 3º,4º,5º y 6º curso, cuota a pagar por cada niño/a:
- 3 eguneko egonaldia	22,00	- Estancia de 3 días
- 5 eguneko egonaldia	37,00	- Estancia de 5 días

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI aldeko boto, PSE-EE (5) PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotziena; eta SEI aurkako boto, EAJ (3) eta EA (3) taldeetako zinegotziena.

9.- Tasen onarpena: UDA 2005.

Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoaz Kirok Patronatuak eta Ogasun Batzordeak hurrenez hurren 2005eko apirilaren 13an eta 2005eko maiatzaren 17an egindako proposamenez

E R A B A K I D U

Donibaneko Udal Kiroldagiko eta Andonaegiko Udal Kirolguneko UDA 2005 egitarauen tasak onartzea:

	UDA 05	
10 orduko ikastaroak	€	Cursos de 10 horas
Donibaneko Kiroldagia. Uda-kanpaina: Tenisa, Aerobika	30	Polideportivo de San Juan. Campaña verano: Tenis, Aerobic.
Trincherpe. Uda-kanpaina: arraunketa	30	Trincherpe. Campaña verano: remo
Trincherpe. Uda-kanpaina: pilota	36	Trincherpe. Campaña verano: pelota

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI aldeko boto, PSE-EE (5) PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotziena; eta SEI aurkako boto, EAJ (3) eta EA (3) taldeetako zinegotziena.

10.- Tasen onarpena: Donibaneko Udal Kiroldegia eta Andonaegiko Udal Kirolgunea, 2005/2006 ikasturtea.

Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoaz Kirol Patronatuak eta Ogasun Batzordeak hurrenez hurren 2005eko apirilaren 13an eta 2005eko maiatzaren 17an egindako proposamenez

E R A B A K I D U

Donibaneko Udal Kiroldegiko eta Andonaegiko Udal Kirolguneko 2005/2006 ikasturteko ikastaroen tasak onartzea:

DONIBANEKO KIROLDEGIA	POLIDEPORTIVO DE DONIBANE
------------------------------	----------------------------------

	2005-06	
	€	
Elkarte-abonua Denboraldia	Pasaiaiko klubak soilik Sólo clubs de Pasaia	Abono-club Temporada
Federatua < 18 urte. Talde bakoitzeko eta denboraldiko (alebinak dohain)	116,37	Federado < 18 años. Por equipo y por temporada (alevines gratis)
Federatua ≥ 18 urte. Talde bakoitzeko eta denboraldiko	223	Federado ≥ 18 años. Por equipo y por temporada

	2005-06		
Ikastaroak: urteko	€	€	Cursos: anual
	Bazkideak	Ez bazki- deak	
	Socios	No socios	
Astean 3 egun < 18 urte, jubilatu, pentsionistak langabetu eta gizarte- laguntzako soldata dutenak	117,76	179,74	3 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 3 egun ≥ 18 urte	157,01	217,96	3 días/semana ≥ 18 años
Astean 2 egun < 18 urte, jubilatu, pentsionistak langabetu eta gizarte- laguntzako soldata dutenak	78,51	144,62	2 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 2 egun ≥ 18 urte	101,23	167,35	2 días/semana ≥ 18 años
Astean egun bat < 18 urte, jubilatu, pentsionistak langabetu eta gizarte- laguntzako soldata dutenak	55,78	123,96	1 día/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean egun bat > 18 urte	73,34	139,45	1 día/semana > 18 años

Ikastaroak: hiruhilabetekoak	Bazkideak	Ez bazkideak	Cursos: trimestral
	Socios	No Socios	
	€	€	
Astean 3 egun < 18 urte, jubilatu, pentsionistak langabetu eta gizartelaguntzako soldata dutenak	37,19	53,71	3 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 3 egun ≥ 18 urte	43,39	64,05	3 días/semana ≥ 18 años
Astean 2 egun < 18 urte, jubilatu, pentsionistak langabetu eta gizartelaguntzako soldata dutenak	26,86	43,39	2 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 2 egun ≥ 18 urte	32,03	48,55	2 días/semana ≥ 18 años
Astean egun bat < 18 urte, jubilatu, pentsionistak langabetu eta gizartelaguntzako soldata dutenak	21,69	37,19	1 día/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean egun bat ≥ 18 urte	19,63	43,39	1 día/semana ≥ 18 años
Ikastaroak: bihilabetekoak	Bazkideak	Ez bazkideak	Cursos: bimestral
	Socios	No Socios	
	€	€	
Astean 3 egun < 18 urte, jubilatu, pentsionistak langabetu eta gizartelaguntzako soldata dutenak	26,86	37,19	3 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 3 egun ≥ 18 urte	32,03	43,39	3 días/semana ≥ 18 años
Astean 2 egun < 18 urte, jubilatu, pentsionistak langabetu eta gizartelaguntzako soldata dutenak	19,63	26,86	2 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 2 egun ≥ 18 urte	21,69	32,02	2 días/semana ≥ 18 años
Astean egun bat < 18 urte, jubilatu, pentsionistak langabetu eta gizartelaguntzako soldata dutenak	15,50	21,69	1 día/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean egun bat ≥ 18 urte	19,63	27,89	1 día/semana ≥ 18 años
Ikastaroak: hilabetekoak	Bazkideak	Ez bazkideak	Cursos: mensual
	Socios	No Socios	
	€	€	
Astean 3 egun < 18 urte, jubilatu, pentsionistak langabetu eta gizartelaguntzako soldata dutenak	13,43	17,56	3 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 3 egun ≥ 18 urte	15,50	21,69	3 días/semana ≥ 18 años
Astean 2 egun < 18 urte, jubilatu, pentsionistak langabetu eta gizartelaguntzako soldata dutenak	11,36	14,46	2 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 2 egun ≥ 18 urte	13,43	16,53	2 días/semana ≥ 18 años
Astean egun bat < 18 urte, jubilatu, pentsionistak langabetu eta gizartelaguntzako soldata dutenak	8,26	13,43	1 día/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social

Astean egun bat \geq 18 urte	10,33	15,50	1 día/semana \geq 18 años
--------------------------------	-------	-------	-----------------------------

TRINTXERPEKO KIROLGUNEA	COMPLEJO DEPORTIVO DE TRINTXERPE
--------------------------------	---

	2005-06	
Elkarte –abonua 2004-2005 Denboraldia	Pasaia klubak soilik Sólo Clubs de Pasaia	Abono-club Temporada 2004-2005
Elkarte-abonua: federatua < 18 urte . (alebinak dohain) -Klubak: taldeko/ denboraldiko -Kirolariak: denboraldiko	198,18	Abono club: federado < 18 años. (alevines gratis) -El club: por equipo y por temporada
Elkarte-abonua: federatua \geq 18 urte . -Klubak: taldeko/ denboraldiko -Kirolariak: denboraldiko	279,18	Abono club: federado \geq 18 años. -El club: por equipo y por temporada

	2005-06		
Ikastaroak: ikasturtea (iraila-ekaina)	Bazki-deak	Ez bazkideak	Cursos: escolar (septiembre-junio)
	Socios	No Socios	
	€	€	
Astean 3 egun < 18 urte, jubilatua, pentsionista, langabetu eta gizarte-laguntzako soldata dutenak	136,36	207,01	3 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 3 egun \geq 18 urte	180,98	251,64	3 días/semana \geq 18 años
Astean 2 egun < 18 urte, jubilatua, pentsionista, langabetu eta gizarte-laguntzako soldata dutenak	90,49	167,35	2 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 2 egun \geq 18 urte	116,52	193,38	2 días/semana \geq 18 años
Astean egun bat < 18 urte, jubilatua, pentsionista, langabetu eta gizarte-laguntzako soldata dutenak			1 día/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean egun bat > 18 urte			1 día/semana > 18 años
Ikastaroak: hiruhilabeteak	Bazki-deak	Ez bazkideak	Cursos: trimestral

	Socios	No Socios	
	€	€	
Astean 3 egun < 18 urte, jubilatu, pentsionista, langabetu eta gizarte-laguntzako soldata dutenak			3 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 3 egun ≥ 18 urte	49,58	74,38	3 días/semana ≥ 18 años
Astean 2 egun < 18 urte, jubilatu, pentsionista, langabetu eta gizarte-laguntzako soldata dutenak			2 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 2 egun ≥ 18 urte	37,19	55,78	2 días/semana ≥ 18 años
Astean egun bat < 18 urte, jubilatu, pentsionista, langabetu eta gizarte-laguntzako soldata dutenak			1 día/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean egun bat ≥ 18 urte			1 día/semana ≥ 18 años
Ikastaroak: bihilabeteakoak	Bazkideak	Ez bazkideak	Cursos: bimestral
	Socios	No Socios	
	€	€	
Astean 3 egun < 18 urte, jubilatu, pentsionista, langabetu eta gizarte-laguntzako soldata dutenak	30,99	43,39	3 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 3 egun ≥ 18 urte	37,18	49,58	3 días/semana ≥ 18 años
Astean 2 egun < 18 urte, jubilatu, pentsionista, langabetu eta gizarte-laguntzako soldata dutenak	22,31	30,99	2 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 2 egun ≥ 18 urte	24,79	37,19	2 días/semana ≥ 18 años
Astean egun bat < 18 urte, jubilatu, pentsionista, langabetu eta gizarte-laguntzako soldata dutenak			1 día/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean egun bat ≥ 18 urte			1 día/semana ≥ 18 años
Ikastaroak: hilabeteakoak	Bazkideak	Ez bazkideak	Cursos: mensual

	Socios	No Socios	
	€	€	
Astean 3 egun < 18 urte, jubilatu, pentsionista, langabetu eta gizarte-laguntzako soldata dutenak	14.88	19,83	3 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 3 egun ≥ 18 urte	17,35	24,79	3 días/semana ≥ 18 años
Astean 2 egun < 18 urte, jubilatu, pentsionista, langabetu eta gizarte-laguntzako soldata dutenak	12.40	16.11	2 días/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean 2 egun ≥ 18 urte	14,88	18,59	2 días/semana ≥ 18 años
Astean egun bat < 18 urte, jubilatu, pentsionista, langabetu eta gizarte-laguntzako soldata dutenak			1 día/semana < 18 años, jubilados, pensionistas, desempleados y con salario social
Astean egun bat ≥ 18 urte			1 día/semana ≥ 18 años

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI aldeko boto, PSE-EE (5) PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotziena; eta SEI aurkako boto, EAJ (3) eta EA (3) taldeetako zinegotziena.

11.- Tasen onarpena: Gazteria eta Kirolak eta Arrokaundieta Aterpetxea, 2005/2006 ikasturtea.

Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoaz Gazteria eta Kirol Batzorde Informatiboak eta Ogasun Batzordeak hurrenez hurren 2005eko apirilaren 15ean eta 2005eko maiatzaren 17an egindako proposamenez

E R A B A K I D U

Gazteria eta Kirol arloko programak eta Arrokaundieta Aterpetxeko tasak onartzea, 2005/2006 ikasturterako:

11. GAZTERIA ETA KIROL ARLOKO PROGRAMAK	11. PROGRAMAS AREA JUVENTUD Y DEPORTES		
	Pasaian errolatuak	Pasaian ez errolatuak	

	Empadronados en Pasaia	No empadronados en Pasaia	
* Haur eta Gazteentzako lantegiak (.2005-2006)	€	€	• Talleres para niños y jóvenes (2005-2006)
Haurrak	39,84	59,77	Niños
Gazteak iraupen luzeko lantegiak	46,50	69,75	Jóvenes: cursos de larga duración
Gazteak: iraupen motzeko lantegiak	16,60	24,90	Jóvenes: cursos de corta duración
* Ludoteka: matrikula	38,73		* Ludoteka: matrícula

IKASTURTEA 2005-2006 CURSO: **

12. ARROKAUNDIETA ATERPETXEA 2005-2006 ikasturterako tasak	12. ALBERGUE ARROKAUNDIETA tasas del curso 2005-2006
---	---

	Pasaian erroldatuak	Pasaian ez erroldatuak	
	Empadronados en Pasaia	No empadronados en Pasaia	
TARIFA OROKORRA:	€	€	TARIFA GENERAL:
Izarak alokatzea	2,40	2,40	Alquiler sábanas
A. 16 urte bitarteko Haur-Gazte Elkarateak eta Ikastetxeak:			A. Asociación niños-jóvenes y Escuelas hasta 16 años:
Ostatu osoa	15,80	16,87	Pensión completa
Bazkaria-afaria	5,47	5,47	Comida-cena
Gaua eta gosaria	7,87	8,94	Noche y desayuno
Gaua-eguna	3,35	4,41	Noche-día
B. 17-25 bitartekoak:			B. Entre 17 y 25 años:
Ostatu osoa	18,19	19,26	Pensión completa
Bazkaria-afaria	6,86	6,86	Comida-cena
Gaua eta gosaria	9,95	11,01	Noche y desayuno
Gaua-eguna	4,41	5,47	Noche-día
C. 26 urtetik gorako helduak:			C. Adultos a partir de 26 años:
Ostatu osoa	21,60	22,66	Pensión completa
Bazkaria-afaria	7,92	7,92	Comida-cena
Gaua eta gosaria	12,02	13,09	Noche y desayuno

Gaua-eguna	4,41	5,47	Noche-día
PIRATEN ETXEKO TARIFAK:	€	€	TARIFAS LA CASA DE LOS PIRATAS:
A. 20-30 Haur kopurua:			A. Grupo de 20-30 niños:
Bi egun (gau bat)	38,46	39,52	2 días (una noche)
Hiru egun (bi gau)	54,58	56,71	3 días (dos noches)
Lau egun (3 gau)	70,70	73,95	4 días (3 noches)
Bost egun (4 gau)	86,87	91,13	5 días (4 noches)
B. 31-40 Haur kopurua:			B. Grupo de 31-40 niños:
Bi egun (gau bat)	31,60	32,66	2 días (una noche)
Hiru egun (bi gau)	47,72	49,85	3 días (dos noches)
Lau egun (3 gau)	63,84	67,03	4 días (3 noches)
Bost egun (4 gau)	79,95	84,21	5 días (4 noches)
C. 41-50 Haur kopurua:			C. Grupo de 41-50 niños:
Bi egun (gau bat)	28,14	29,20	2 días (una noche)
Hiru egun (bi gau)	44,32	46,44	3 días (dos noches)
Lau egun (3 gau)	60,43	63,62	4 días (3 noches)
Bost egun (4 gau)	76,56	80,81	5 días (4 noches)

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI aldeko boto, PSE-EE (5) PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotziena; eta SEI aurkako boto, EAJ (3) eta EA (3) taldeetako zinegotziena.

12.- Tasen onarpena: Udal Euskaltegia, 2005/2006 ikasturtea.

Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoaz Udal Euskaltegiko Zuzendaritza batzordeak eta Ogasun Batzordeak hurrenez hurren 2005eko apirilaren 22an eta 2005eko maiatzaren 17an egindako proposamenez

ERABAKI DU

Udal Euskalgiko matrikula tasak onartzea, 2005/2006 ikasturterako:

1. OHIKO IKASTAROAK / CURSOS HABITUALES

(2004/2005eko matrikula + %3,3 (KPIa):
 (Matrícula 2004/2005+ 3,3 % (IPC)

	GUZTIRA
--	----------------

2005/2006 ikasturtea – Curso 2005/2006	TOTAL
<p><u>Pasaiaiko ikasleak - Empadronados en Pasaia:</u></p> <p>0,95 X 340 = 323 euro 18 euro/fotokop.</p> <p><u>Pasaiaikoak ez diren ikasleak:</u> <u>Alumnos no empadronados en Pasaia:</u></p> <p>0,99 X 340 = 337 euro 18 euro/fotokop.</p>	<p><u>341 euro</u> (56.738 pta.)</p> <p><u>355 euro</u> (59.067 pta.)</p>

2. BALIABIDE GELA / AULA DE RECURSOS

2005/2006 ikasturtea – Curso 2005/2006	GUZTIRA TOTAL
<p><u>Pasaiaiko ikasleak - Empadronados en Pasaia:</u></p> <p>1,40euro/orduko X 345 = 483 euro</p> <p><u>Pasaiaikoak ez diren ikasleak:</u> <u>Alumnos no empadronados en Pasaia:</u></p> <p>1,44euro/orduko X 345 = 496,80 euro</p>	<p><u>483 euro</u> (80.364 pta.)</p> <p><u>497 euro</u> (82.694 pta.)</p>

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI aldeko boto, PSE-EE (5) PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotziena; eta SEI aurkako boto, EAJ (3) eta EA (3) taldeetako zinegotziena.

13.- Kreditu aldaketa: Pasaia Musikal.

Udalbatzak, bertako zinegotzien aho batez eta 2005eko maiatzaren 26an Ogasun Batzordeak egindako proposamenez

E R A B A K I D U

2005eko Pasaia Musikaleko aurrekontuan kreditu aldaketa ba onartzea (baliogabetzearen ziozko baxak) ondoan aipatzen den eran:

1.01.00.481.451.40.01.2005	Musika jarduerak Actividades musicales	- 20.114
----------------------------	---	----------

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI aldeko boto, PSE-EE (5) PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotziena; eta SEI aurkako boto, EAJ (3) eta EA (3) taldeetako zinegotziena.
- Parte-hartzeen atalean ondokoak esan zituzten:
 - EAko zinegotzi-taldeko eledun Miriam Cano Puy and.ak Kulturako zinegotzi ordezkariari galdetu dio zein jarduera desagertuko diren, musika-jardueretarako 20.000 € kendu direnez gero.
 - Alkate andreak erantzun dio elkarteek memoriak noiz aurkeztuko zain egon beharko dugula doikuntzak egin eta irizpide berriak ezartzeko. Logikoa da diru-laguntzetarako partidak gutxitzea, horiek eskuzabaltasun hutsez ematen direlako.
 - EAJko zinegotzi-taldeko eledun José Luis Goikoetxea jn.ak gai honekiko kezka adierazi du; izan ere, bere garaian haren taldeak eskatu zuen egin beharreko doikuntzak egiteko, aurreko gerakin positiboa gastuaren inplementaziorako erabili zenean.
 - Haren taldea abstenitu egingo da udala araudien arabera behartuta dagoelako aurrekontua egokitzea, nahiz eta barruak aurkako botoa emateko eskatzen dion.

HIRIGINTZA

14.- Hasierako onspena ematea Bordalaborda 02 kai eremuaren antolamenduaren aurrerapenari.

Ondoko agiriak aztertu ditugu: Bordalaborda 02 HIE eremuan protuko zerbitzu-gunearen antolamenduaren aurrerapena, Ingenieria Asmatu S.L.k idatzia; Arquitectura Chavarri y Asociados S.L.ren azterlana. Halaber, kontuan hartu dugu udal idazkariak 2005eko maiatzaren 19an egindako txostenean adierazitakoa. Horiek horrela, Udalbatzak bertako zinegotzien aho batez, 2005eko maiatzaren 26an Eledunen Batzordeak egindako proposamenez ondoko akordioa

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Hasierako onspena ematea Bordalaborda 02 HIE eremuan portuko zerbitzu-gunearen antolamenduaren aurrerapenari.

Kordeleia Hiri Eremuaren fitxan, zehazki ekipamendu eta urbanizazio-baldintzei buruzko 3.3. atalean, ondokoa jasoko da: eraikinaren lurpeko solairuetako sarbidea kanpotik egin ahal izango da, eta lurpeko aparkalekua erabilera baimenduen artean egongo da.

BIGARRENA.- Portuko Agintaritzarekin dagokion hitzarmen edo akordioa sinatzea, aurrerapen hori adoste aldera; ondoren Portuko Espazioak Antolatze Plan Bereziaren barruan sartzeko. Eta alkatea gaitzea hitzarmen hori negoziatu eta sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jendaurrean jartzea **HILABETEZ**, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta gehien irakurtzen diren egunkarietako batean iragarkia jarritz; eta espedienteaz aztertu nahi duen edonoren esku jartzea, interesdunek alegazioak aurkez ditzaten.

15.- PERCO 2005eko jarduketa-proposamena.

Hirigintza eta Ingurumeneko Udal Batzorde Informatiboak 2005eko maiatzaren 12an emandako proposamenez, Udalbatzak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Blas de Lezo kaleko hiritarte-lanak, Zumalakarregi eta Maiatzaren Lehena kaleen arteko zatia PERCO 2005 programaren barruan sartzeko eskatzea.

BIGARRENA.- Alkatea gaitzea akordio hau beharrezkoak diren agintzetarako.

- Parte-hartzeen atalean ondokoak esan dituzte:
 - Alkate andreak adierazi du obraren aurrekontua eguneratzeko dagoela eta 270.000 eurokoa dela, obra-zuzendaritza barne. Halaber, gogorarazi du Aurrekontua Gauzatzeko Arauan ondokoa aurreikusten dela: obra honetarako beste administrazioetatik lortzen den finantziarioa txikia bada, berriz aztertu edo bertan behera uzteko aukera dago.

➤ Gai-zerrendatik kanpo:

- Bertako zinegotzien aho batez –era berean korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa osatzen dutenak, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2.artikuluaren arabera– Udalbatzak premiazkoztat jo du ondoko puntua aztertzea, eta beraz, aztertu eta bozkatzeari ekin diote:

16.- Lanpostuen Zerrenda aldatzea.



Udal idazkari, udaltzainburu eta zerbitzuetako ikuskatzaile lanpostuek hurrenez hurren %30, %20 eta %20ko dedikazio bereziko osagarria ezarria dute; eta ezarpen horrek ez ditu betetzen EUFALEBAren hirugarren xedapen gehigarriko aurreikuspenak. Lehenengo bi lanpostuek legez dakarte dedikazio hori; hirugarrenak, berriz, ezarria zuen Obra eta Zerbitzuetako burutza zuenean, baina zirkunstantzia hori desagertu egin da.

2005eko maiatzaren 25ean izandako Pertsonal eta Administrazio Batzordean langile publikoen ordezkariak aipatutako osagarria kentzearen aurkako iritzia agertu zuten, baldin eta orokorrean egiten bazen.

Udalak abian du lanpostuen balorazio prozesua eta horren ondorioz lanpostuen zerrenda berrikusi eta lanpostuen ordainsariak eguneratuko dira.

Udalak egoki deritzo udaltzainburu eta zerbitzuetako inspektore lanpostuen ordainsari osoa mantentzeari, osagarri iragankor berezi gisa, balorazio hori egin arte.

Azken balorazioa egin zenetik udal idazkari lanpostuaren zereginak nabarmen aldatu dira, izan ere, bigarren TAGaren lanpostua sortzeak idazkariaren aholkularitza juridikoaren eginkizuna hein handi batean arindu du; beraz, beharrezkoa da idazkari lanpostuaren baldintzak egokitzea.

Dena den, kontuan hartzekoa da 1999az gero behin-behinean udaleko idazkari lanpostua betetzen ari den TAG-letratuak ez duela oraindik ezarria ordainsari-mailarik, idazkari lanpostuari dagokion 26. maila finkatua izan arren.

Gaurko egunean izandako Eledunen Batzordean aztertu eta eztabaidatutakoa kontuan hartuta, eta alkatearen 2005eko maiatzaren 26ko proposamena aintzat hartuta, Udalbatzak, bertako zinegotzien aho batez on

ERABAKI DU

LEHENA.- Udal idazkari, udaltzainburu eta zerbitzuetako ikuskatzaile lanpostuek ezarria duten dedikazio bereziko osagarria ezeztatzea.

BIGARRENA.- Udaltzainburu eta zerbitzuetako ikuskatzaile lanpostuei ordainsarien %20 ezartzea osagarri iragankor berezi gisa, euren lanpostuen balorazioa egin arte.

HIRUGARRENA.- Behin-behinean udal idazkariaren lanpostua betetzen duen administrazio orokorreko teknikari-letratuari EUFALEBAko 26. ordainsari-maila ezartzea; beraz, gaur egun duen ordainsari-maila mantenduko luke.

LAUGARRENA.- Udal idazkari lanpostuaren ordainsari-maila aldatzea eta EUFALEBAko 20. maila ezartzea.

Hori guztia abian den balorazio-prozesuaren kalterik gabe.

- Parte-hartzeen atalean ondokoak esan dituzte:
 - EAJko zinegotzi-taldeko eledun José Luis Goikoetxea jn.ak adierazi du bere taldea bat datorrela alkatearen proposamenarekin.
 - EAKo zinegotzi-taldeko eledun Miriam Cano jn.ak adierazi du Eledunen Batzordean esandakoa islatzen duela.
- Gai-zerrendako gaien azterketa amaitu ondoren, EAJko zinegotzi-taldearen eledunak, Udalbatzari bi mozio proposatu dizkio: bata, estropadetarako diru-laguntza berezia emateko ezohiko kreditua gaitzeari buruzkoa; eta bestea, medikuaren etxearen erabilerari buruzkoa. Hori guztia ondoko lege eta araudiak kontuan hartuta: azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4. artikuluan aurreikusten den ahalmena, Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa onartzen duena; eta Udal Erregelamendu Organikoaren 23. Artikulua.
 - Alkate andrearen iritziz estropadetarako diru-laguntzari buruzko mozioa udalbatzar honetan aztertzea da; aldiz, medikuaren etxeari buruzkoa aztertu aurretik, dagozkion txostenak egin behar dira.
 - Ondoren, alkate andreak 5 minutuko etena adostu du.
- Bertako zinegotzien aho batez gai-zerrendan sartzea erabaki ondoren, Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoz, ondoko mozioa onartu du:

17.- Subentzio berezia: Estropadak.

Korporazio honek jakin badaki gure udalerriko arraun-elkarteek zer-nolako zailtasunak izan ohi dituzten Pasaiako badian egiten diren estropadak antolatzeke, funtsean aurrekontu arazoak direla-eta; izan ere, KOXTAPE, ILLUNBE eta SANPEDROTARRA elkarteek 2005-04-29ko idazkian (erregistro zk.a 2209) egindako kalkuluen arabera, gutxienez 24.000 €ko finantza-estaldura beharko lukete.

Aurrekontu Orokorrei egin genion 59. zuzenketa arrazoitzeko erabili genituen irizpide berberak ekarri ditugu; izan ere, Pasaian eta Pasaiarentzat programatzen diren estropadak egiten jarraitzeak berebiziko garrantzia du Pasaiaren irudiarentzat eta bertako tradizio historikoarentzat. Horiek horrela, EAJ eta EAKo udal taldeok beharrezkotzat jotzen dugu aipatu dugun aurrekontu arazo hori konpontzea; eta beraz, premiaz ondorengo erabakiak hartzeko proposatzen dugu:

ERABAKIAK

1) Udalaren Aurrekontu Orokorrean ezohiko kredituak gaitzea 2005eko ekitaldirako, 2004-12-31n lortutako diruzaintzaren gerakin positibotik eta ondoko zehaztapenen arabera:

* ESTADO DE GASTOS		
1.06.00.481.452.10.03.2005	Subvención especial: Regatas en Pasaia	24.000 €

* ESTADO DE INGRESOS		
2.02.00.870.611.00.01.2005	Remanente de Tesorería	24.000 €

2) Babesleengandik eskuratutako errekursoak ekitaldiak finantzatzeko erabiliko dira eta hala badagokio, udal honek akordio honen lehenengo puntuan onartutako finantziazioa gutxitzeko.

3) Akordio hau gaiarekin zerikusia duten alderdiei jakinaraztea.

- Aktan jasota geratzeko, bozketaren emaitza honako hau da: ZORTZI (8) aldeko boto, EAJ (3), EA (3) eta PP (2) taldeetako zinegotziena; eta ZAZPI (7) abstentzio, PSE-EE (5) eta EB (2) taldeetako zinegotziena.
- Parte-hartzeen atalean ondokoak esan dituzte:
 - Alkate andreak jakinarazi du PSE-EE taldea abstenitu egingo dela kontuan hartuta aurrekontuei aurkeztutako zuzenketa bera dela eta haren taldeak orduan aurkako botoa eman zuela. Une hartan ez genuen diruzaintzaren gerakinaren berri. Hala ere, haren taldearen iritziz, udalerrriak badauzka beste lehentasun batzuk, nahiz eta hau ona izan.
 - EBko zinegotzi-taldeko eledun Jesús M^a García Garde jn.ak adierazi du haren taldea bat datorrela alkate andreak esandakoarekin, eta iragarri du haren taldea ere abstenitu egingo dela.
 - PPko zinegotzi-taldeko eledun Guillermo Sánchez-Berra jn.ak harridura agertu du bere taldeak Gobernu Taldearekin aurrekontu ituna duelako eta etenaldian ez dietelako kontsultatu; eta iragarri du bere taldeak ere jarrera aldatu eta aldeko botoa emango duela; hala ere, argitu du arrauna Pasaian pintzelkada bat besterik ez dela, eta udalaren finantziazioa merezi duten beste gauza eta kirol ugari dagoela.
 - Alkate andreak aitortu du Partidu Popularreko ordezkariak arrazoi duela, etenaldian kontsulta egin behar zitzaizela esatean.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 10:30etan amaitutzat eman da batzarraldia, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate andreak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.